



www.begiko.com

© Testua: 2019, ESTI VIVANCO

© Irudiak: 2019, ALEX MACHO

© Euskarazko argitalpena:

2019, Santillana Infantil y Juvenil, S. L. eta Zubia Editoriala, S. L.

Legizamon poligonoa

Gipuzkoa kalea, 31, 1. esk.

48450 Etxebarri

Tel.: 94 426 90 72

ISBN: 978-84-16839-07-0

Lege-gordailua: M-7320-2019

Printed in Spain - Espainian inprimatua

Lehen argitalpena: 2019ko azaroa

Sailaren zuzendaritza:

Joseba Santxo eta Maite Malagón

Edizioa:

Ainhua Basterretxea, Ane Barrenengoa eta Yolanda Caja

Errealizazioa:

Miren Pellejero

Arte-zuzendaritza:

José Crespo eta Rosa Marín

Proiektu grafikoa:

Marisol del Burgo, Rubén Chumillas, Julia Ortega eta Álvaro Recuenco

Debekaturik dago, legeak ezarritako salbuespenak salbu, lan hau inola erreproduzitzea, banatzea, jendaurrean jakinaraztea, zein eraldatzea, haren jabetza intelektuala dutenen baimenik gabe. Lan honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo zuzenean CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.cedro.org).

Egun gorriak

Esti Vivanco

Irudiak: Alex Macho

begiko

*Amari, nuere buruarengan
sinesten irakatsi didalako*

Aitak arbitroa zauritu zuenekoa

Eskolako futbol zelaiazen harmailak jendez gainezka zeuden larunbat goiz hartan. Mutilen txapelketako finala zegoen jokoan, eta partidaren bigarren zatian berdinduta zeuden talde biak: bi eta bi. Ikusleen artean nabaritzen zen urduritasuna jasanezina egiten ari zitzaien Izarri. Giroa izugarri berotuta zegoen; lehen mailako ligako partida bat ematen zuen! Amak erositako pipa paketea beharrean, azazkalak jaten ari zen Izar sutuki, eserlekuan tinko eta begiak zelaian iltzaturik. Partidan guztiz kontzentratuta. Aita alboan zutunik izateak ez zuen gehiegi laguntzen, haren pazientzia gutxiko mugimendu eta oihuek Izarren urduritasuna areagotzen zuten eta.

—Ea ba, Ekhi, mugi ezkerretatik, demonio!
—bota zuen aitak eskuak aho-ertzetan jarrita,
ahal zuen indar guztiaz deiadarka—. Jaurti
baloia, kontxo! Arin!

—Inaxio, mesedez, lasaitu! Partidaz goza-
tzera etorri gara! —esan zuen amak egoeraga-
tik lotsatuta—. Azkenean Ekhi urdurituko
10 duzu horrela oihukatzen jarraitzen baduzu!

Ekhi Izarren neba bikia zen. Berak bezala,
hamabi urte zituen eta ume-umetatik ibilia
zen futboleant. Izan ere, eskolako taldeko au-
rrelaria zen; askoren ustez, jokalaririk onena,
hark egiten baitzituen gol gehienak. Ekhik
urre koloreko kizkurak eta begi urdinak zi-
tuen. Gainera, oso mutil alaia zen eta arazoei
alde positibotik begiratzen zien beti.

Egun hartan, hala ere, nebaren jokoak egu-
na bezain lainotsua zirudien, Ekhi ez baitzen
ari beste norgehiagoka batzuetako trebetasu-
naz. Paseetan ez zebilen batere fin, eta baloia
atera jaurtitzen saiatzen zen apurretan ez
zuen asmatzen.

Bigarren zatiaren hogeita hamabosgarren minutuan, arbitroak partida amaierako txistua jo zuen. Izarrek, artega, hasperen egin zuen, jokoaren binako berdinketak luzapena egongo zela esan nahi zuelako. Ondorioz, neba denbora gehiagoz sufritzen ikusi beharko zuen.

Aitak bat-batean bota zuen purrustadagatik Izar berehala konturatu zen gizona bere onetik ateratzen hasia zela. Aurpegia gorri-gorri zeukan eta bekokia izerdi tantaz blai. Se-me irabazten ikusi nahi zuen nola edo hala. Ekhiren jokaldi txarren errua beste edonori egotzi behar bazion ere. Eta horixe bera egin zuen luzapenak iraun zuen ordu erdian zehar. Beste taldeko jokalariren bat Ekhirri behar baino apur bat gehiago hurbiltzen zitzaion bakoitzean, aitak arbitroari oihu egiten zion bortizki, amorruz beteta.

—Aizu! Ez duzu faltarik adierazi behar? Bultzatu du eta! Ez duzu ikusi? Ergel halakoa!

—Inaxio, horixe baino ez genuen behar! Arbitroa iraindu behar al duzu orain? —esan

zuen amak haserre, bere gauzak jasotzen zituen bitartean—. Sentitzen dut, baina ezin dut egoera hau jasan. Ni banoa!

—Baina, ama, partidaren amaiera galduko duzu! —esan zion Izarrek kezkatuta.

12 —Lasai, Izartxo —erantzun zion amak leunki—. Futbol-zelaitik kanpo jarraituko dut partida. Zu geratu hemen jokoaz gozatzen. Nik ezin dut zure aita jasan futbolagatik bere onetik ateratzen denean. Kanpoan itxarongo zaituztet.

Amak bere gauza guztiak batu zituen eta futbol-zelaitik atera zen. Aita partidan hain murgilduta zegoenez, ez zen amaren haserreaz konturatu ere egin.

—Ez duzu behin ere faltarik adieraziko? Eskuaz ukitu du baloia, itsu al zaude? —bota zuen aitak halako batean.

Izarrek orduan partida ikusten ari ziren gainontzeko gurasoek aitari gaitzesenez begiratzen ziotela nabaritu zuen eta guztiz lotsatuta sentitu zen. Begirada zelaira zuzendu eta



Ekhiri ere gauza bera gertatzen zitzaiola ikusi zuen. Ziur une horretan nebak edozer emango zuela handik desagertzeagatik.

14 Talde bietako jokalariaik leher eginda zeuden, baina markagailuak aldaketarik gabe jarraitzen zuen: bi eta bi. Denbora amaitzen ari zen; hortaz, ezinbestean, penaltitara jokatu beharko zuten berdinketa hausteko. Hura urduritasuna!

Aurkako taldeari egokitu zitzaion lehen jaurtiketa txanda. Joanes Ekhiren taldeko atezaina zen, Izarren gelakidea eta haurtzaroko lagun ohia. Momentu hartan gaixoak flan baten moduan dardarka zituen hankak, egoeraren presioak kikilduta.

Harmailetan sekulako iskanbila zegoen; animo-hitzak, garrasiak eta txaloak aldi berean nahasten ziren. Izar adi-adi ari zen Joanesen mugimendu bakoitza aztertzen. Haren egoera ederki ulertzen zuen. Berak ere atezain jokatzen zuen nesken taldean eta bazekien euren funtsezko papera zela futbol partidetan.

Ez zitzaion batere erraza iruditzen bat-bateko-
tasunez baloia gelditzeko gaitasuna izatea,
azkeneko unera arte ezkerretik, eskuinetik,
goitik ala behetik etorriko zitzaion jakin barik.

—Kontuz baloi altuekin, Joanes! —bota
zuen mutikoaren amak, indartsu.

Egia zen: Joanes inoiz ez zen batere trebea
izan goitik zetozkion tiroak gelditzen. Izarrek
ondo zekien. Hala, nerbioek paralizatuta, bost
jaurtiketatik bi gelditzea besterik ez zuen lor-
tu. Ekhiaren taldeko lehen bi jokalariek penal-
tiak huts egin zituzten, baina gero bi gol egitea
lortu zuten, harmailetako giroa asaldataz.

Azken penalti jaurtiketa Ekhiari egokitu zi-
tzaion; huraxe zen partida berdintzeko aukera
bakarra! Izarri bihotzak paparretik ihes egin
behar ziola iruditu zitzaion.

Ikuslegoa isilik geratu zen, mutilak zer
egingo zain. Orduan, baloia jaurtitzear zela,
bat-batean, aitaren oihu gogaikarri batek isil-
tasuna hautsi zuen. Eta, horrekin batera,
Ekhiaren kontzentrazioa ere bai.

—Animo, seme!!! Eman egurra kaiku horiei!!!

Ekhi izerdi-patsetan zegoen. Ahal izan zuen indar guztia bildu, atzera egin eta ostiko itzela eman zion baloiari. Zoritxarrez, indarraren indarrez, baloia atearen langatik gora joan zen ihesi. Mutikoak huts egin zuen penaltia.

16 Izarren neba lurrera jausi zen, abail eginda, aurkariak garaipena ospatzen zuten bitartean.

Eta, une hartan, arbitroa partida amaierako txistua jotzera zihoala, Izarrek inoiz bizi izan zuen gauzarik lotsagarriena gertatu zen. Aitak «kaka zaharra!» oihukatu, partida osoan ireki ez zuen ur botila hartu eta, amorruez beteta, arbitroari bota zion bortizki. Punteria harrigarriaz, botilak bete-betean jo zuen gizonaren burua.

«Hau lotsa! Futbolak itsutu egiten du! Espektakulu tamalgarri hau bizi behar izatea ere!», pentsatu zuen Izarrek bere kolkorako; «eskerrak amak hori ikusi behar izan ez duen». Neskatile ez zen ausartu hitz horiek ozen esa-

tera; egia esan, aita futbolagatik bere onetik aterata zegoenean alferrikakoa zen berarekin hitz egiten saiatzea.

Izar bere barne pentsamenduetatik atera zenean, futbol-zelaira begiratu eta arbitro koi-tadua, konortea galduta, lurrera ziplo erortzen ikusi zuen.

Izarrek begiak itxi zituen guztiz lotsatuta eta momentu hartantxe lurrak irentsi zezan desiratu zuen.